

**FEDEDUNEN ARBASOA,
EUSKAL ANTZERKI ETA OPERA**

Gaurko euskal idazleen artean olerkaririk baldin bada, benetako olerkaririk, Aita Iratzeder beneditarra da, nik uste. Ez deiogun sinistu berak *Biztaren Olerkia* izenpean argitara emoniko olerki-bilduman mardulean esan deuskuna:

Hautan nihork ez dezake
pertsu ederrik bila,
hautan deus ere ez baita
baizik-eta
pindar, auhen, amodio
eta goiko bozkario.

Apaltasunak eragin deutso autormen ori, baiña ez dogu sinistu bearrik. Apaltasuna egiaz ibiltea esan euskun Santa Teresa andiak, baiña Aita Iratzederren autormen ori ez da egiazkoa. Egiazko olerkari dogu bera. Olerkia iturriari ur gardena lez dario berari, olerki argi, bizi, bero eta askotan or autortu dauan *pindarra*, ba-ruan daroan sua eta garra dariona. Olerki bakotxean bere barruko giro baketsu eta garbi maitagarria ikusten deutsogu, baiña bai askotan sugar biurtu eta garretan irakiten jakona bere. Belokeko fraide-etxeke bake-giroan, ango ixiltasunean eta otoitzetan girotutako fraide-etxeke bake-giroan, ango ixiltasunean eta otoitzetan girotutako olerkia da